

ESKOLAKO AGENDA 21

10/11
IKASTURTEA

ZIZURKIL

GAIA:

ELIKADURA





IKASTETXEA:

San Millan Ikastetxea

Pedro Mari Otaño Ikastetxea

Jesusen Bihotza Ikastola

AURKEZPENA

- 2010-2011 ikasturtean Zizurkilgo umeek eta gazteek **Elikaduraren** gaia landu dugu Eskolako Agenda 21 programaren barnean. Helburu nagusia elikadura ardatz hartuta erlazionatutako hainbat gai aztertzea izan da; adibidez gure kontsumo ohiturek tokian tokiko zein urruneko gizarte eta ingurumenean dituzten eraginez jabetzea beste batzuen artean.
- Udal Batzorde honetara ekarri nahi izan ditugu lanaren emaitzak eta hausnarketaren ondorioz adostutako konpromisoak eta proposamenak.

Partehartzaileak:

Eskolako Komunitate osoak hartzen du parte: ikasleak protagonista nagusiak izanik, baina baita ere gurasoak, irakasleak eta eskolako beste langileak. Denera Zizurkilen 217 ikaslek parte hartu dugu proiektu honetan.



Eskolako Agenda 21ean hiru ardatz lantzen dira:

Eskolako kudeaketaren hobekuntza.

Kurrikulumaren azterketa.

Komunitatearen partaidetza.



Azken atal honetan egindako lanak hurrengoak izan dira:

- **Haur Hezkuntzakoek** panel baten bitartez fruta eta barazkia batzuk identifikatzen ikasi dute eta garai bakoitzean zein elikagai dauden ezagutu dituzte.
- **Lehen Hezkuntzako 1go eta 2. Mailakoek**, elikadura osasuntsua eta ariketa fisikoa landu dute: etxeko erosketa, aste bateko dieta, herrian ariketa fisikoa egiteko dauden aukerak eta norbanakoaren kirol ohiturak aztertu dituzte.
- **Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. Mailakoek**, aiton amonei galdetegia egin diete elikatzeko ohiturak nola aldatu diren ezagutzeko. Herriko dendetan garaiko produktuak identifikatu eta jatorri ezberdinak ezagutu dituzte.

Azken atal honetan egindako lanak hurrengoak izan dira:

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. Mailakoek,

Herritarrei galdetegia eginez kontsumo ohiturak aztertu dituzte.

Nekazaritza ekologikoa zertan datza ezagutu dute eta herrian produktu ekologikoak erosteko aukerak aztertu dituzte.

Gure paisaia eta kulturaren jatorria eta garrantzia ezagutu dute. Baserriak, ondare kultural eta paisajistiko bezala duen garrantziaz jabetu dira.



Azken atal honetan egindako lanak hurrengoak izan dira:

Bestelakoak:

- Sentsibilizazio bideoa ikusi ,maskota bat egin,.
- Zizurkilgo azoka berezia burutu zenean, bertan gure baratzako eta gurasoak ekarritako zenbait produktu saldu genituen. Bertan ateratako dirua “el barrial “ El Salbadorreko auzora bidali zen urtero bezala.



Azken atal honetan egindako lanak hurrengoak izan dira:

- Kutxak antolatutako tailerra burutu, elikadura osasuntsuaren inguruan.
- Kontsumo gelak antolatutako tailerra burutu. “ Elikagaien arteko analisi konparatiboa” eta “supermerkatua eta erosketa”.
- Mugarik gabeko albaitariak aurkeztutako materiala erabili, bideoa , jokua, ikuskizuna...
- Sarobe baserria bisita egin genuen. Han behiak eta baratza modu ekologikoan hazten dituzte. Gregoriok azalpen interesgarriak eman zizkigun eta primeran tratatu ziguten.



LANAREN ONDORIOAK:

Herriaren Diagnosia egin ondoren, Udal Batzar honetara ekartzen ditugu lortutako emaitzak eta ondorio nagusiak.

- Batzuetan ez dugu barazki eta fruta asko jaten.
 - Ez dugu jakiten nongoa diren jaten ditugun zenbait janari.
 - Zenbait kasutan telebistaren aurrean denbora gehiegi pasatzen dugu.
 - Batzuetan ez dugu beharko genukeen osasuntsu jaten. Litxarrerri gehiegi jaten ditugu.
 - Batzuetan behar ez ditugun gauzak erosi egiten ditugu.
 - Zabor asko sortzen dugu.
 - Askok etxeko produktuak ekoiztu eta kontsumitzen dituzte.
 - Baserriak desagertuko balira, herriak hiri bihurtuko lirateke, lur sailetan etxeak eraikiko lituzketelako.
- Belazeak , zuhaitzak... desagertuko liratekete eta gure bizi kalitatea jeitsi egingo zen. Ezingo genuke arnasa ondo hartu.

KONPROMISOAK:

Zizurkilgo ikasleok, ondorengo konpromisoak hartzen ditugu:

- Taperrean ekarri hamaiketakoa.Paper eta ontziratze gutxiago erabili.
- Fruta eta barazki gehiago jan. Fruta egunarekin jarraitu asteazkenero.
- Kirola egin.
- Gure inguruko fruta eta barazkiak kontsumitu, baserritarrei erosten saiatu.
- Ingurugiroa zaindu, ahalik eta zabor gutxien sortuz.
- Denetatik jango dugu, janari bakoitza bere neurrian.



KONPROMISOAK:

- Telebista, bideo jokoa, Wii-an, ... gutxi ibili.
- Litxarkeri gutxiago jan.
- Urtebetetzean litxarkerien ordeztu bizkotxoa jan.
- Gauzak alferrik ez erosi.
- Azoka egiten bada, hara joaten saiatuko gara.



PROPOSAMENAK:

Gure lanaren ondorioak kontutan izanik, hauek dira egoera hobetzeko egiten dizkizuegun proposamenak:

- Etxeak eraikitzen dituztenean, ingurumena errespetatzea.
- Igerilekua eraikitzea proposatzen dugu, horrela kirol gehiago egiteko aukera edukiko baikenuke; posible ez bada, frontoian porteria eta kanastak jartzea behintzat.
- Baserritarrei produktu gehiago erosteko, azoka bat egin bi asteren behin edo astero, edo horretarako denda bat egokitu.Laguntza eskaini.



PROPOSAMENAK:

- Inguruko produktu ekologikoak jan ahal izateko, Zizurkilen jartzea denda edo leku bat bertako produktu horiek saldu ahal izateko, baina horretarako erraztasunak eman behar zaizkie janari hauek produzitzen dituztenei.
- Udalak terreno batean hemengo produktu ekologikoak landatu. Hauekin astero azoka antolatu edota eskolako jangelarako erabili.
- Ingurumena zaintzeko kanpainak egin, Kalera joan eta mahai bat jarri eta jendeari informazioa eman, Kartelak jarri informatuz: bertako eta garaiko produktuen kontsumoa bultzatzeko, produktu ekologikoen onuren inguruan, kontsumo taldeei buruzko informazioa zabaldu...
- Inauterietako meriendan fruta ale bat sartu (platano, mandarina, laranja...)
- Eskolako baratzerako landareak Udalak ordaintzea

ESKERRAK

Herriko Agenda 21-ari egiten dizkiogun ekarpen hauek kontuan hartzea eskatzen dizuegu.

Zuen arreta ere eskertu nahi dizuegu eta espero dugu egiten dizkizuegun proposamenei idatziz erantzutea.

Denon artean Zizurkilentzat etorkizun justuagoa eta jasangarriagoa lortuko dugulakoan, jaso ezazue gure agurrik beroenak

